

rribiko uri erriko echean goizeko bederatzietan, non arkituko diran erriko Buruak, Bilgumak, uri artako personarik adiragarrienak eta Elkargo bietako Aldimaiteak.

Bilbaon Uztaillaren 20.<sup>an</sup> 1883.<sup>an</sup> Bilbaoko «Euskal-erriko» Goarpelari bakidea.—Iruñen Uztaillaren 19.<sup>an</sup> 1883.<sup>an</sup>, Naparroko Euskal-Elkargoaren Goarpelari Bakidea.

## BASERRITAR BATEN KANTUA.



*Poesía premiada con UN PENSAMIENTO DE ORO en el Certámen científico, artístico y literario de Pamplona.*

Neure adiskide D. BIZENTE ARANA Jaunari

Vanitas igitur est, divitas perituras querere et in illis sperare. KEMPIS. Lib. 1.<sup>o</sup> cap. 4.<sup>o</sup>

Vanidadea da bada laster amaituko diran ondasunen billa ibiltea eta euretan confiantza ipintea. KEMPISEK 1.<sup>o</sup> liburuan 4.<sup>o</sup> kapituloan

Chistuzko orroez lurrun ta ketsu  
 Ur zelayetan aurrera,  
 Doian ontzia urrinduagaz  
 Urten egia dan aldera.  
 Eta bertako jente guztia  
 Agur ta agurka lurrera,  
 Ete doaka benturaz inoz  
 ¿Ez biurzeko atzera,  
 Ainbeste ama negar chilioz  
 Emen ichiten dabela?  
 Eldu zakidaz gaur enegana  
 Neure musacho añ leuna,  
 Eldu zakidaz argitutera  
 Neure adimen illuna,  
 Eldu zakidaz neurtiztu daidan  
 Zer dan zoriontasuna,  
 Neurtizto daidan gazte askoren  
 Gaurko zoriontasuna  
 Neurtitzez gura neuskielako  
 Buruan sartu zentzuna.

Neurtitz oneetan ikusi daien  
 Doatsuera lurrean,  
 Gozan daikela uste ez arren  
 Nai nok baserri echean,  
 Bizirik bertan Jaungoicoaren  
 Bildur santu ta legean,  
 Ichasoetan joan bayarik  
 Zoriontasun atzean,  
 Gaurko ontzian doaran legez  
 Gorputz ta arimen kaltean.

Gorputz arimak biak galtzera  
 Euskaldun zentzunik bagak,  
 Mutill ta neskach baserrietan  
 Zuzen etozan landarak,  
 ¡Oh baña miña! amerikara  
 Orain joaten diranak,  
 Aiñe biurrak geyenez oi dauz  
 Beruntz makurtzen dan danak,  
 Añ abe liraiñ emen zepuruntz  
 Zarden igoko ziranak!

Zarden igoko zirala diñot  
 Jayo zirean lurretan,  
 Arech tantaien gisan in dartsu  
 Emengo mendi tartetan,  
 Emenche gero bizi izateko  
 Urte asko ta luzeetan,  
 Gorputzean ta berdin ariman  
 Osasun onaz bietan,  
 Aita zar asko dakusgun legez  
 Euskaldun baserrietan.

¡Oh baserriko bizitza gozo  
 Zaukazadana echean!  
 ¿Nok topau zaizkez urez anditik  
 Ameriketa aldean?  
 ¿Nok topau zaizez ain beste kasta  
 Loi ta zikiñen artean?  
 Iñok bere ez an, ezelan bere  
 Kantari onen ustean,  
 Orren probeta dakustalako  
 Garbiro neure echean.

Nere echean sagar zintzoak  
 Ez dau osatzen ustelik,  
 Nastu bagarik ustelak baña  
 Ez dan ichiten lagunik,  
 Au alan dala zelan ez dodan  
 Erakusteko bildurrik,  
 Amerikako kontuak orra  
 Irudi baten esanik,  
 Orro an zelan gaur ez dagoan  
 Arimarako gauz onik....

Mundu onetan arima geyen  
 Nai dodalako maitatu,  
 Urez aruntza iragoteak  
 Oi nau osoro bildurtu,  
 Agaitik jayo nintzan tokian  
 Bertan nai neuke amaitu,  
 Bertan nain pobre biziagatik  
 Doatsuera billatu,  
 O birtutea zu zaukazanak  
 Zoriona dau aurkitu.

Zu zaukazanak balitza bere  
 Egingo dirutzen jaube,  
 Daki doatsu ez litekela  
 Egingo orregaitik bere,  
 Iturri danen urakaz zelan  
 Ez dan lchasorik bete,  
 Daki gizonen zuloa ez dala  
 Inoz ondasunez ase,  
 Naiz izan konde sein izan markes  
 Alperrik izan Errege.

Zu zaukazanak zelan añ ondo  
 Lurrari daukan ezantua,  
 Banidadetzat dauka arruak  
 Billatzen daben gustua,  
 Daki Jesusek esan ebala  
 Ganbeloaren burua,  
 Orratz zulotik iragotia  
 Dogula errezagua.  
 Aberats batek jaditsi baño  
 Betiko salbazinua.

Zu zaukazanak kamaleonen  
 Gisan es dan nai nekatu,  
 Dakielako aişez goserik  
 Ezin leitela amaitu  
 Zelan ibairik ez dan sekula  
 Iñoz goruntza biurtu,  
 Daki arima ezin leitela  
 Beeko gauzetan garatu,  
 Dalako berez odeiez gora  
 Bear dabena egatu.

Zu zaukazanak agaitik oi dan  
 Billatzen bere ertegia,  
 Zu zaukazanak beti aurkitzen  
 Beraren Ipartokia,  
 Zu zaukazanak oreñak baño  
 Ariñago iturria,  
 Zerren biotza daukan aiñ sendo  
 Jaungoikoagan josia  
 Bera dalako Ipar ertegi  
 Ta atsegiñ danen sustraia.

Zu zukazanak dakuzanean  
 Chorichoren bat kantetan,  
 Ezdana inoz etortekoaz  
 Bildurrez ezer penetan,  
 Begiraturik bere soñeko  
 Luma politezkoetan,  
 Mirariturik Jaungoikoaren  
 Probidentziaz benetan,  
 Autortuten dan ardura ohea  
 Daukala arek gizonetan.

Zu zukazana nekazaritzan  
 Sendo eginik bearra,  
 Egunoroko ogiaz dago  
 Pozetan biziten dala,  
 Zu zukazana andrea bada,  
 Emazte bat da leiala,  
 Senarra bada Jaungoikoaren  
 Bildur santua daukana.  
 Semea edo alaba bada  
 Gurasoentzat otsana.

Zu zukazanak umeakaz dau  
 Echean otoitz egiten,  
 Iragokoak atsekaberik  
 Ez deutsa inoz emoten,  
 Etortekoak bere geyegi  
 Ez dau egundo estutzen  
 Dakialako bein bere Jaunak  
 Bat ez dabela ichiten,  
 Baldin badeutsa biotz ta fedez  
 Aita gurea deituten.

Zu zukazanak ondasun askoz  
 Euki ez airren echea,  
 Orregaitiño beragaz dauka.  
 Aukeran libertadea,  
 Gizon bildurrak ez deutsa lako  
 Kentzen ari logurea,  
 Morrollu sendoz ez dauka zetan  
 Gabetan ichi atea,  
 Dakielako ez doakola  
 Lapurren diruzalea.  
 Zu zukazanak azkenez nasai  
 Baserrian bizi dala.  
 Keska bagarik daroa eguna  
 Lo gozo eztian gaba,  
 Zu zukazana zelan dan bizi  
 Orra neurtitzen esana,  
 Orra dirutza asko bagarik  
 Zorioneko izanda,  
 Zoriondunik ez dago emen  
 Birtutetsua ezpada.

FELIPE ARRESE ETA BEITIA.